# Xedapen Orokorrak

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

**2291**

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 23koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasleen erretoreordearena, irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegia argitaratzeko dena.

Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2011ko martxoaren 10ean, UPV/EHUko irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegia onartu egin zuen.

Irakasleen errektoreordeak ebazpen hau emateko ahalmena du gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2011ko otsailaren 25eko ebazpenari jarraiki.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 10.2 artikuluan dionez (2004ko martxoaren 12ko EHAA), unibertsitateko gobernu organoek ematen dituzten aplikazio orokorreko xedapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko ditu unibertsitateak, eta ez dira jarriko indarrean beren testu osoak argitaratu arte. Horrela, bada, ondokoa

ERABAKI DUT:

***Lehenengoa***.– Agindua ematea UPV/EHUko irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

***Bigarrena***.– Araudi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Leioa, 2011ko martxoaren 23a.

Irakasleen errektoreordea,
JON IRAZUSTA ASTIAZARAN.

# Disposiciones Generales

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO**

**2291**

RESOLUCIÓN de 23 de marzo de 2011, del Vicerrector de Profesorado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena la publicación del Reglamento de atribución transitoria y asignación de docencia.

El Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, en sesión de 10 de marzo de 2011, aprobó el Reglamento de atribución transitoria y asignación de docencia.

El Vicerrector de Profesorado es competente, por delegación para conocer dictar esta Resolución, en virtud de lo dispuesto en la Resolución de 25 de febrero de 2011, del Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento del Rectorado de la Universidad y de delegación de competencias.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 10.2 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco (BOPV de 12 de marzo de 2004) que establece la obligación de la Universidad de dar publicidad en el Boletín Oficial del País Vasco a las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de gobierno de la misma, las cuales no entrarán en vigor hasta la íntegra publicación de sus textos.

RESUELVO:

***Primero***.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento de atribución transitoria y asignación de docencia.

***Segundo***.– Este Reglamento entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Leioa, a 23 de marzo de 2011.

El Vicerrector de Profesorado,
JON IRAZUSTA ASTIAZARAN.

IRAKASKUNTZA ALDI BATERAKO ESLEITZEKO ETA IRAKASLEEN ARTEAN ANATZEKO ARAUTEGIA

Tituluen eskaintza Europako Unibertsitate Eremura egokitzeko prozesuan, hauek dira UPV/EHUren helburu nagusiak:

– Unibertsitate ikertzailea eta irakaskuntzan berritzailea izateko bidean aurrerapauso nabarmenak egitea.

– Nazioartean zabalduta dauden kalitateko graduondokoen eskaintza finkatzea.

– Euskarazko eta gaztelaniazko eskaintza orekatua bermatzea, eta hizkuntza anitzetako eskaintza finkatzea.

– Irakaslana eta ikerlana hobeto zabaltzea nazioartera.

Titulu berrien eskaintza ezartzeko prozesua arautu ahal izateko, honakoa onartu zuen Gobernu Kontseiluak 2009ko azaroaren 19ko bileran: irakaskuntzaren plangintzarako araudia graduko titulazioak ezartzeko prozedurara eta eremura egokitzea. Araudiaren egokitzapen horretan Ezarpenerako Plan Bateratua garatzen da, sail bakoitzak izan beharreko plantilla finkatzen duena, eman beharreko irakaskuntzaren arabera. Irakaskuntza hori zenbaterainokoa den matrikulatutako ikasle kopuruak, ikerketako jarduerek eta graduondoko zein doktoregoko eskaintzak zehazten dute. Behin sail bakoitzak dauzkan giza baliabideak ezagututa, ahalik eta irakats eskaintza zabalena eta orekatuena egiten da.

Ezarpenerako Plan Bateratuan jasotako egokitzapenetan honako hau adierazten da beren-beregi:

Sail batek ez badauka irakasle nahikorik gradu berrietako irakaskuntzaz arduratzeko, ahalegina egingo da irakasle gehiegi dauzkaten kideko sailetako irakasleek har dezaten beren gain irakaskuntza hori, batez ere titulazioko lehenengo bi ikasturteetan. Halakoetan, ekimena Irakasleen errektoreordearena izango da, ikastegietako zuzendaritzekin koordinatuta, eta lehentasuna emango zaio sailen arteko akordioari. Kideko sailetako irakasleei irakaskuntza esleitzeko irizpideak eta prozedura Gobernu Kontseiluak arautuko ditu.

Bestalde, 2010eko irailaren 23ko ezohiko bileran onartu ziren UPV/EHUren Estatutuek. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez argitaratuak (otsailaren 24ko EHAA), ondokoa diote 25.3 artikuluan:

«Errektoreak irakaslanak esleitu ahal izango dizkie irakasleei jakintza arlo kidekora lotutako gaietan, horretarako arrazoiak egonda. Horretarako, aldez au-

REGLAMENTO DE ATRIBUCIÓN TRANSITORIA Y ASIGNACIÓN DE DOCENCIA

En el proceso de adaptación de la oferta de títulos al Espacio Europeo de Educación Superior, la UPV/EHU ha establecido como principales objetivos los siguientes:

– Avanzar significativamente hacia una Universidad investigadora e innovadora en docencia.

– Consolidar la oferta de postgrados de calidad y con demanda internacional.

– Garantizar una oferta equilibrada en euskera y castellano, a la vez que se consolida una oferta plurilingüe.

– Mejorar de forma evidente en la internacionalización de la actividad docente e investigadora.

Con la finalidad de regir el proceso de implantación de la nueva oferta de títulos, el Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 19 de noviembre de 2009, aprobó la Adecuación de la Normativa de Planificación Docente al Procedimiento y Marco de Implantación de las Titulaciones de Grado. En la misma, se desarrolla un nuevo Procedimiento Integrado para la Implantación consistente en determinar una plantilla suficiente para cada departamento, teniendo en cuenta la docencia que debe atender en función del alumnado matriculado, la actividad investigadora y la oferta de formación en postgrado y doctorado, y una vez conocidos los recursos humanos disponibles, realizar la oferta docente más amplia y equilibrada posible con los mismos.

Entre los ajustes que se adoptan en este Procedimiento de Implantación, se recoge expresamente que:

En los casos en que la capacidad docente de los departamentos no sea suficiente para atender la docencia de los nuevos grados, se buscará que ésta sea asumida por profesorado de departamentos afines que cuenten con excedentes de capacidad docente, preferentemente en los dos primeros cursos de la titulación. En su caso, el Vicerrectorado de Profesorado de forma coordinada con las direcciones de los centros, tomará la iniciativa a este respecto, dando prioridad a cualquier acuerdo previo entre departamentos. A tal efecto, el Consejo de Gobierno regulará los criterios y el procedimiento a seguir para la asignación de docencia a profesorado de departamentos afines.

Por su parte, el artículo 25.3 de los Estatutos de la UPV/EHU aprobados mediante sesión extraordinaria de fecha 23 de septiembre de 2010, y publicados por Decreto 17/2011, de 15 de febrero, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (BOPV de 24 de febrero) establece:

«En el marco de la legislación aplicable, el Rector o la Rectora motivadamente podrá asignar al profesorado actividades docentes en áreas de conocimiento

rretik irakasle eta ikertzaileen ordezkaritza organoekin negoziatuko du, indarreko legeriak ezarritako baldintzetan eta aplika daitekeen legeriaren esparruan, eta Gobernu Kontseiluak ezarritako irizpideen arabera jardungo du».

Horri lotuta, UPV/EHUren Estatutuetako hirugarren xedapen iragankorrak zehazten du 25.3 artikuluan aipatutako irizpideak onartu artean, eta salbuespenez, errektoreak berak esleitu ahalko dituela irakaslanak beharrezkoa baldin bada zerbitzua bermatzeko.

Lortu nahi da, azken batez, aurre egitea aldi batean egon daitezkeen arazoei ikasleek eskola guztiak izan ditzaten, batez ere gaur egun indarrean dauden titulazioak (desagertu artean) eta abian dauden graduko titulu berriak (ezarpena amaitu artean) aldi berean irakatsiko diren bitartean. Horixe da, azken finean, salbuespenez errektorearen esku uzten den ahalmena, unibertsitate publikoa garen aldetik eman beharreko irakaskuntza zerbitzu publikoa bermatzeko.

Hau da, jakintza arlo berdinetan edo kidekoetan arrazoi ezberdinengatik erabiltzeke dauden baliabide guztiak erabiliko dira aldi batean, ikasleek eskola guztiak izan ditzaten.

Horregatik, gerta ez dadin ikasleak eskolarik gabe egotea eta lortu nahian irakaskuntzako baliabideen optimizazioa, arautegi honek bi bide zehazten ditu arazoei aurre egiteko:

a) irakaskuntza beste sail batzuetako irakasleen artean banatzea aldi baterako, eta

b) sail batek eman beharreko irakaskuntza beste sail bati esleitzea aldi baterako.

Arautegi honen bidez lortu nahi da aldeen arteko akordioaz heltzea konponbideetara eta, edonola ere, entzunda kasuan kasuko ikastegien eta sailen iritzia.

Bestalde, eta adierazitakoaren ildotik, irakaskuntza esleitzeko irizpideak ez ditu ezarriko sailak bere antolamendua egitean (Sailen Oinarrizko Arautegiak eta sail bakoitzaren arautegiak arautua); irizpide horiek unibertsitateak berak ezarriko ditu, irakaskuntzako baliabideen optimizazioa lortze aldera.

Era berean, irakaskuntza esleitzeko irizpideek bermatu egingo dituzte bai irakaskuntzaren kalitatea bai irakasleen eta ikertzaileen irakats zama bidezkoa, esleitutako kredituen kopuruaz gain beste alderdi hauek ere kontuan izanda: irakasle bakoitzak eman beharreko gaien edo irakasgaien kopurua, horien arteko kidetasuna, ikasleen kopurua, eta ordutegia.

afines, según los criterios establecidos por el Consejo de Gobierno, previa negociación con los órganos de representación del personal docente e investigador en los términos establecidos en la legislación vigente».

A este respecto, la Disposición Transitoria tercera de los Estatutos de la UPV/EHU establece que la asignación de tareas docentes a que se refiere el artículo 25.3 podrá realizarse hasta que los criterios a que se refiere el artículo 25.3 no se hayan aprobado, por el Rector o Rectora, con carácter excepcional, cuando así lo requiera la garantía del servicio.

Se persigue, en definitiva, evitar la eventual desatención docente que con carácter transitorio pueda resultar, especialmente en el periodo de convivencia de las titulaciones actualmente en vigor (mientras dure su extinción) y los nuevos títulos de grado en marcha (mientras dure el proceso de implantación), con la intervención, en última instancia y con carácter excepcional, de la Rectora o el Rector para asegurar la prestación del servicio público docente al que como universidad pública estamos obligados.

En definitiva, se trata de evitar la desatención a la docencia recurriendo al empleo transitorio de todos aquellos recursos docentes pertenecientes a áreas de conocimiento iguales o afines que están infrautilizados por las más diversas causas.

Por ello, a los efectos de evitar la desatención docente y buscando la optimización de recursos, este Reglamento pretende dar soluciones, por una doble vía:

a) asignando transitoriamente docencia a profesorado de otros Departamentos y,

b) atribuyendo transitoriamente docencia a otro Departamento de aquél que la tiene encomendada.

El Reglamento busca que dichas soluciones vengan dadas, con carácter general, por común acuerdo entre las partes afectadas y, en cualquier caso, desde un procedimiento en el que se de audiencia a los Departamentos y Centros afectados.

Por otra parte, y a partir de lo expuesto, el establecimiento de los criterios de asignación docente, no es ya una cuestión de organización departamental, regulada por el Reglamento Marco y los Reglamentos propios de cada uno de ellos, sino una cuestión de ámbito universitario, que afecta a la optimización de los recursos docentes.

Del mismo modo, dichos criterios de asignación docente deben buscar, para asegurar la calidad de la docencia, una carga docente razonable para el personal docente e investigador, con un reparto de docencia que procure atender no sólo al número de créditos asignados sino a cuestiones de otra índole como el número de materias o asignaturas asignadas a cada profesora y profesor, la afinidad entre las mismas, el número de alumnas y alumnos atendidos y su articulación horaria.

Beraz, unibertsitate osoan aplikagarri izango diren irizpide orokorrak ezarri nahi dira arautegi honetan, eskolak kalitatez eta eraginkortasunez eman ahal izateko.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Ezarpen eremua eta helburua.

Arautegi honen bidez irizpideak ezartzen dira, honetarako:

1.– Ikasleak ez daitezen egon eskolarik gabe aldi batean:

a) Sail bateko irakasleen artean banatuko da aldi baterako kideko sail baten irakaskuntza.

b) Sailei esleituko zaie aldi baterako irakaskuntza; eta

2.– Irakaskuntza UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen artean banatzeko.

II. TITULUA

SAIL BATEN IRAKASKUNTZA BESTE SAIL BATEKO IRAKASLEEN ARTEAN BANATZEA ALDI BATERAKO

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***2. artikulua.***– Irakaskuntza beste sail bateko irakasleen artean banatzeko irizpide orokorrak.

1.– Indarrean dauden titulazioei dagozkien ikasketa planetan irakaskuntza eman behar duten sailetako irakasle eta ikertzaileei esleituko zaie irakaslana hasiera batean.

2.– Hala ere, beste sail bateko irakasle eta ikertzaileengana jo ahal izango da, hurrengo artikuluan zehaztutakoari jarraiki.

***3. artikulua.***– Irakaskuntza beste sail bateko irakasleen artean banatzeko prozedura.

1.– Sail baten irakaskuntza esleitu ahal izango zaie kideko sail bateko irakasleei, baldin eta sail biek elkarrekin egiten badute horretarako proposamena, kontseiluek hartutako akordioei jarraiki, eta kasuan kasuko irakasleak adierazten badu ados dagoela. Proposamen horretan adieraziko dira, beren-beregi, beste saileko irakasleei esleitzen zaizkien gaiak edo irakasgaiak eta esleipenaren indarraldia.

2.– Irakasleari esleituko zaion irakaskuntza ez bada berari dagokion jakintza arlokoa, esleipena errektoreak egingo du.

Por ello, este Reglamento pretende establecer unos criterios generales, aplicables a toda la Universidad, que permitan atender la docencia con las debidas garantías de calidad y eficiencia.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Ámbito de aplicación y objeto.

Este Reglamento tiene por objeto establecer los criterios para:

1.– Con la finalidad de evitar la eventual desatención docente que pueda darse:

a) Asignar transitoriamente docencia a una profesora o profesor de un Departamento de docencia de otro Departamento afín.

b) Atribuir transitoriamente docencia a los distintos Departamentos, y

2.– Asignar la docencia al personal docente e investigador de la UPV/EHU.

TÍTULO II

ASIGNACIÓN TRANSITORIA DE DOCENCIA A UNA PROFESORA O PROFESOR DE UN DEPARTAMENTO DE DOCENCIA DE OTRO DEPARTAMENTO

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 2.***– Criterios generales para la asignación de docencia a profesoras y profesores de otro Departamento.

1.– La asignación docente se realizará, inicialmente, entre el personal docente e investigador del departamento que tiene atribuida la docencia en el plan de estudios de las titulaciones en vigor.

2.– No obstante lo anterior, se podrá recurrir a personal docente e investigador de otro Departamento, conforme a lo previsto en el artículo siguiente.

***Artículo 3.***– Procedimiento para la asignación de docencia a profesoras y profesores de otro Departamento.

1.– A propuesta conjunta de dos Departamentos, por Acuerdos de sus respectivos Consejos, y con la aceptación expresa de la persona afectada, podrá asignarse docencia de un Departamento a profesoras y profesores de otro. Dicha propuesta, recogerá, de forma expresa, las materias o asignaturas que se asignan a la profesora o profesor, del otro Departamento, y el período de vigencia de dicho Acuerdo.

2.– Dicha asignación se realizará por la Rectora o Rector cuando se trate de asignar, a la profesora o profesor, docencia de un área de conocimiento distinta a la de su adscripción.

3.– Programa egiteko ardura eta gaia edo irakasgaia ebaluatu eta koordinatzekoa hasierako sailak jarraituko du izaten. Sail hori izango da, era berean, irakaskuntzaren ardura daukan organoa eta berak jarri beharko ditu neurriak irakaskuntza eman egiten dela bermatzeko, besteak beste eskolak eman behar dituen beste saileko irakasleak lizentziaren bat daukanean onartuta.

III. TITULUA

IRAKASKUNTZA SAIL BATI ESLEITZEA ALDI BATERAKO

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***4. artikulua.***– Irakaskuntza esleitzeko irizpide orokorrak.

1.– Indarrean dauden titulazioei dagozkien ikasketa planetan irakaskuntza eman behar duten sailetako irakasle eta ikertzaileei esleituko zaie irakaslana hasiera batean.

2.– Hala ere, sail baten irakats ahalmena ez bada nahikoa esleituta dituen irakats betebehar guztiak betetzeko, jakintza arlo berdinak edo kidekoak dituzten sailetako irakasle eta ikertzaileengana joko da.

3.– Gobernu Kontseiluak irizpide objektiboak aplikatuko ditu sail batek eman beharreko gaien edo irakasgaien irakaskuntza jakintza arlo berdina edo kidekoa duen beste sail bati esleitzeko, esate baterako kasuan kasuko sailen arteko akordioa, jakintza arloen arteko berdintasuna edo kidekotasuna, eskolak ematen diren ikastegiak, eta kontratatutako eta esleitutako irakats betebeharren arteko aldea.

4.– Akordioa badago sail baten irakaskuntza aldi baterako beste sail bati esleitzeko, azken sail horrek izango du irakaskuntzaren ardura; baina programa egiteko ardura, ebaluazio irizpideak zehaztekoa eta koordinazioarena hasierako sailak jarraituko du izaten. Era berean, sail horrek jarri beharko ditu neurriak irakaskuntza eman egiten dela bermatzeko, besteak beste eskolak eman behar dituen beste saileko irakasleak lizentziaren bat daukanean onartuta.

5.– Sailen arteko akordioa egonez gero, irakasle premiak dauzkan sailaren irakaskuntza emango duen sailak har ditzake bere gain programa egiteko ardura, ebaluazio irizpideak zehaztekoa eta koordinazioarena. Halakoetan, azken sail horrek jarri beharko ditu neurriak irakaskuntza eman egiten dela bermatzeko, besteak beste eskolak eman behar dituen beste saileko irakasleak lizentziaren bat daukanean onartuta.

3.– La responsabilidad del programa, de la evaluación y coordinación de la materia o asignatura seguirá siendo del Departamento al que está encomendada la docencia, que será el órgano responsable de la misma y quien deberá adoptar las medidas necesarias para la correcta impartición de la docencia en supuestos tales como las licencias de la profesora o profesor- del otro Departamento- que tiene encomendado el encargo de su impartición.

TÍTULO III

ATRIBUCIÓN TRANSITORIA DOCENTE A UN DEPARTAMENTO

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 4.***– Criterios generales para la atribución de docencia.

1.– La asignación docente se realizará, inicialmente, entre el personal docente e investigador del departamento que tiene atribuida la docencia en el plan de estudios de las titulaciones en vigor.

2.– No obstante, en aquellos casos en los que la capacidad docente de un departamento no sea suficiente para atender todo el encargo docente que tiene asignado, se recurrirá a personal docente e investigador de otro u otros departamentos con áreas de conocimiento iguales o afines.

3.– El Consejo de Gobierno utilizará para atribuir transitoriamente docencia de materias o asignaturas de un Departamento a otro, con Área de Conocimiento igual o afín, criterios objetivos tales como el acuerdo entre los Departamentos afectados, la identidad o afinidad entre las áreas de conocimiento, el Centro de impartición y la capacidad docente contratada en relación a la encomendada.

4.– Con el Acuerdo por el que se atribuye transitoriamente docencia de un Departamento a otro, la responsabilidad de su impartición se transfiere a éste y, con carácter general, la responsabilidad del programa, de los criterios de evaluación y de la coordinación se mantienen en el Departamento de origen, que será el órgano que deberá adoptar las medidas necesarias para la correcta impartición de la docencia en supuestos tales como las licencias de la profesora o profesor- del otro Departamento- que tiene encomendado el encargo de su impartición.

5.– Por Acuerdo de los Departamentos afectados, la responsabilidad del programa, de los criterios de evaluación y de la coordinación se pueden transferir al Departamento que asume la docencia correspondiente al Departamento deficitario, que será, en este caso, el órgano que deberá adoptar las medidas necesarias para la correcta impartición de la docencia en supuestos tales como las licencias de la profesora o profesor que tiene encomendado el encargo de su impartición.

6.– Sail baten irakaskuntza beste sail bati esleitu arren aldi baterako, sail bakoitzaren ahalmena egokitu egin beharko da pixkanaka-pixkanaka ikasketa planean esleitutako irakats betebeharretara.

***5. artikulua***.– Kideko sailak eta jakintza arloak.

Kideko sailak eta jakintza arloak izango dira akademia antolakuntzaren arloan eskumena duen errektoreordeak (aurrerantzean Akademia Antolakuntzako errektoreordea) eta irakasleen arloan eskumena duen errektoreordeak (aurrerantzean Irakasleen errektoreordea) zehaztutakoak. Irakasleen errektoreordea izango da, halaber, hasierako zerrenda eguneratzeko eskumena izango duen organoa, prozedura berari jarraituta.

II. KAPITULUA
SAIL BATEN IRAKASKUNTZA BESTE SAIL BAI ESLEITZEA ALDI BATERAKO

***6. artikulua.***– Prozedurari buruzko xedapen orokorrak.

1.– Irakasleen errektoreordeak emango dio hasiera prozedurari, kasuan kasuko sailek edo ikastegiek hala eskatuta. Irakasleen errektoreordearen beraren ekimenez edo Akademia Antolakuntzako errektoreordearen ekimenez ere eman ahal izango zaio hasiera prozedurari, ikasleak eskolarik gabe baldin badaude.

2.– Prozedura amaituko da Irakasleen errektoreordearen proposamena ikusita Gobernu Kontseiluak hartuko duen erabakiarekin, baina kontuan hartuta betiere hurrengo artikuluetan xedatzen dena. Erabaki horretan adieraziko dira beste sailari esleitzen zaizkion gaiak edo irakasgaiak eta esleipenaren indarraldia.

***7. artikulua.***– Irakasle gehiegi dauzkan sailak eta irakasle premiak dauzkan sailak elkarrekin egindako eskaeraz hasitako prozedura.

1.– Irakasleen errektoreordeak eman behar dio hasiera irakaskuntza aldi baterako beste sail bati esleitzeko prozedurari, esleituta dituen irakats betebehar guztiak betetzeko irakasle premiak dauzkan sailak eta irakasle gehiegi dauzkan sailak euren kontseiluek hartutako akordioari jarraiki elkarrekin egindako proposamena jaso ondoren.

2.– Irakasleen errektoreordeak txostenak eskatuko dizkie kasuan kasuko sailei eta ikastegiei. Txosten horiek ez dira izango lotesleak.

3.– Aipatutako txostenak eskatuta, ez badira bidaltzen zazpi egun balioduneko epean, aldekoak direla ulertuko da. Aipatutako epetik kanpo bidaliko diren txostenak ez dira hartuko kontuan.

6.– La asignación transitoria de docencia de un Departamento a otro no impedirá la adecuación progresiva de la capacidad docente de cada Departamento al encargo docente asignado en el Plan de Estudios.

***Artículo 5.***– Departamentos y Áreas de Conocimiento afines.

Los Departamentos y Áreas de Conocimiento afines serán los establecidos por la Vicerrectora o Vicerrector competente en materia de Ordenación Académica (en adelante Vicerrectora o Vicerrector de Ordenación Académica), previo informe de la Comisión de Ordenación Académica y de la Vicerrectora o Vicerrector competente en materia de Profesorado (en adelante Vicerrectora o Vicerrector de Profesorado), que será, asimismo, el órgano competente para actualizar la relación inicial, para lo cual deberá seguir el mismo procedimiento.

CAPÍTULO II
ATRIBUCIÓN TRANSITORIA DOCENTE A UN DEPARTAMENTO DISTINTO AL QUE LA TIENE ENCOMENDADA

***Artículo 6.***– Disposiciones generales relativas al procedimiento.

1.– El procedimiento se iniciará por la Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado, a instancia de los Departamentos y/o Centros afectados. Dicho procedimiento también podrá iniciarse a iniciativa propia o de la Vicerrectora o el Vicerrector de Ordenación Académica cuando la docencia esté desatendida.

2.– El procedimiento terminará mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno a propuesta de la Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado, conforme a lo establecido en los artículos siguientes. Dicho Acuerdo recogerá las materias o asignaturas que se transfieren y el período de vigencia de la correspondiente transferencia.

***Artículo 7.***– Procedimiento iniciado a instancia conjunta del departamento excedentario y deficitario.

1.– El procedimiento para la atribución transitoria de la docencia, a otro departamento se iniciará por la Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado, a propuesta conjunta, por acuerdo de sus respectivos Consejos, del Departamento sin capacidad suficiente para atender todo el encargo docente que tiene asignado y del Departamento con exceso de capacidad docente.

2.– La Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado solicitará informe del Centro o de los Centros afectados. Estos informes no serán vinculantes.

3.– En el supuesto de que solicitados los informes antedichos, no se emitieran en el término de 10 días hábiles, se considerarán positivos y no se tendrán en consideración cualesquiera otros informes que se emitan posteriormente.

4.– Irakasleen errektoreordeak Gobernu Kontseiluari aurkeztu ahal izango dio, onar dezan, sail baten irakaskuntza aldi baterako beste sail bati esleitzeko proposamena.

5.– Gobernu Kontseiluak hartuko duen erabakiaren berri emango die Irakasleen errektoreordeak kasuan kasuko sailei eta ikastegiei, baita ere Akademia Antolakuntzako errektoreordeari. Erabaki hori euren iragarki oholetan emango dute argitara sailek.

Sailek, gainera, ahalegina egingo dute aipatutako erabakiaren berri emateko irakasle interesatuei, bereziki arrazoi justifikatuak izanda kanpoan daudenei. Horretarako, besteak beste, unibertsitateko helbide elektronikoa erabiliko dute.

6.– Gobernu Kontseiluaren erabakiaren kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo horri hilabeteko epean, erabakia argitaratzen denetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietarako Epaitegietan hilabete biko epean, erabakia argitaratzen denetik hasita.

7.– Irakasleen errektoreordeak Gobernu Kontseiluari aurkeztuko dio jarritako errekurtsoak ebazteko proposamena, baina horren aurretik jakinaren gainean jarriko du ordezkari sindikalen kasuan kasuko organoa. Gainera, organo horren iritzien berri eman beharko dio Gobernu Kontseiluari. Proposamena egiteko, txostena eskatu ahal izango dio Akademia Antolakuntzako errektoreordeari edo egoki ikusten duen beste edonori.

***8. artikulua.–*** Irakasleen errektoreordeak hasitako prozedura, sailen arteko akordiorik ez dagoenean.

1.– Aurreikusten bada sailen batek ezingo dituela bete esleitutako irakats betebeharrak, Irakasleen errektoreordeak emango dio hasiera irakaskuntza aldi baterako beste sail bati esleitzeko prozedurari. Prozedura horri hasiera emateko ekimena Irakasleen errektoreordearena berarena izan daiteke, edo honako hauek proposatuta eman dakioke hasiera prozedurari: irakats betebehar guztiak betetzeko irakasle premiak dauzkan sailak, irakasle gehiegi dauzkan sailak, kasuan kasuko ikastegiek, edo Akademia Antolakuntzako errektoreordeak.

2.– Irakasleen errektoreordeak txostenak eskatuko dizkie kasuan kasuko sailei eta ikastegiei. Txosten horiek ez dira izango lotesleak.

3.– Aipatutako txostenak eskatuta, ez badira bidaltzen zazpi egun balioduneko epean, aldekoak direla

4.– La Vicerrectora el Vicerrector de Profesorado podrá elevar al Consejo de Gobierno, para su aprobación, propuesta de atribuir transitoriamente, docencia de un Departamento a otro.

5.– El Acuerdo del Consejo de Gobierno se comunicará, por parte de la Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado, a los Departamentos y Centro o Centros afectados, así como a la Vicerrectora o el Vicerrector de Ordenación Académica y será publicada, por los departamentos afectados, en sus tablones de anuncios.

Estos procurarán, además, el conocimiento general del acuerdo de referencia por el profesorado interesado, especialmente por el que esté ausente por causa justificada, con la utilización de medios tales como el correo electrónico institucional.

6.– Contra el Acuerdo del Consejo de Gobierno podrán interponer, las personas interesadas, recurso potestativo reposición, ante dicho órgano, en el plazo de un mes desde la publicación del citado Acuerdo, o directamente, recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao en el plazo de dos meses desde su publicación.

7.– La Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado elevará al Consejo de Gobierno propuesta para la resolución de los recursos interpuestos, informando, con carácter previo, al órgano de representación sindical correspondiente, cuyas consideraciones serán dadas a conocer al Consejo de Gobierno. Para la realización de dicha propuesta podrá solicitar informe de la Junta de Centro, de la Vicerrectora o Vicerrector de Ordenación Académica o de cualquier otro que entendiera necesario.

***Artículo 8.–*** Procedimiento iniciado por el Vicerrectorado de Profesorado en el supuesto de falta de acuerdo entre los Departamentos afectados.

1.– En el caso de que se prevea la falta de cobertura del encargo docente asignado a un Departamento, el procedimiento para la atribución transitoria de docencia a otro departamento, se iniciará por la Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado, por iniciativa propia o a propuesta del departamento sin capacidad suficiente para atender todo su encargo docente (en adelante departamento deficitario), del departamento con exceso de capacidad docente (en adelante departamento excedentario), del Centro o Centros afectados, o de la Vicerrectora o Vicerrector de Ordenación Académica.

2.– La Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado solicitará informe de los Departamentos y del Centro o de los Centros afectados. Estos informes no serán vinculantes.

3.– En el supuesto de que solicitados los informes antedichos, no se emitieran en el término de 10 días

ulertuko da. Aipatutako epetik kanpo bidaliko diren txostenak ez dira hartuko kontuan.

4.– Irakasleen erektoreordearen erabaki proposamena, sail baten kreditu jakin batzuk beste sail bati esleitzekoa, onartzen bada, Akademia Antolakuntzako erektoreordeari eta kasuan kasuko sailei eta ikastegiei jakinaraziko zaie. Horiek zazpi egun balioduneko epea izango dute alegazioak egiteko. Zazpi egun horietatik kanpo egindako alegazioak ez dira hartuko kontuan.

5.– Irakasle premiak dauzkan sailak, aurreko puntuan aipatu den proposamena jaso eta gehienez ere zazpi eguneko epean, proposatu egingo ditu, kontseiluaren akordioari jarraiki, irakasle gehiegi dauzkan saileko irakasleei esleituko zaizkien gaien edo irakasgaien irakaskuntza osoa edo zati bat. Proposamen horren berri emango die Akademia Antolakuntzako erektoreordeari, Irakasleen erektoreordeari, irakasle gehiegi dauzkan sailari eta kasuan kasuko ikastegiei. Horiek zazpi egun balioduneko epea izango dute alegazioak egiteko. Zazpi egun horietatik kanpo egindako alegazioak ez dira hartuko kontuan.

6.– Irakasle premiak dauzkan sailak ez badu egiten proposamena epearen barruan, Akademia Antolakuntzako erektoreordeak egingo du eta jakinaren gainean jarriko ditu kasuan kasuko sailak eta ikastegiak, bai eta Irakasleen erektoreordea ere. Horiek zazpi egun balioduneko epea izango dute alegazioak egiteko. Zazpi egun horietatik kanpo egindako alegazioak ez dira hartuko kontuan.

7.– Irakasleen erektoreordeak Gobernu Kontseiluari aurkeztuko dio, onar dezan, sail baten gaien edo irakasgaien kreditu jakin batzuk aldi baterako beste sail bati esleitzeko proposamena, bai eta irakasle premiak dauzkan saileko kontseiluaren proposamena ere, gai edo irakasgai jakin batzuen irakaskuntza osoa edo zati bat aldi baterako beste sail bati esleitzekoa. Proposamen hori egin ez bada, Akademia Antolakuntzako erektoreordearena aurkeztuko da.

8.– Gobernu Kontseiluak hartuko duen erabakiaren berri emango die Irakasleen erektoreordeak kasuan kasuko sailei eta ikastegiei, baita ere Akademia Antolakuntzako erektoreordeari. Erabaki hori euren iragarki oholetan emango dute argitara sailek.

hábiles, se considerarán positivos y no se tendrán en consideración cualesquiera otros informes que se emitan posteriormente.

4.– La propuesta de resolución, de la Vicerrectora o Vicerrector de Profesorado sobre la necesidad de encomendar la docencia de un número determinado de créditos de un Departamento a otro, en el caso de adoptarse, se notificará a la Vicerrectora o Vicerrector de Ordenación Académica y a los Departamentos y Centro o Centros afectados y éstos dispondrán de 7 días hábiles para realizar las alegaciones que estimen pertinentes. No se tendrán en consideración cualesquiera otras alegaciones que se emitan pasados los referidos 7 días.

5.– El Departamento deficitario, por Acuerdo de su Consejo, realizará, en el plazo máximo de 7 días naturales desde la recepción de la anterior, propuesta de las materias o de las asignaturas, que completa o parcialmente se encomendarán al profesorado del Departamento excedentario, notificando dicha propuesta a la Vicerrectora o el Vicerrector de Ordenación Académica, a la Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado, al Departamento excedentario y al Centro o Centros afectados y éstos dispondrán de 7 días hábiles para realizar las alegaciones que estimen pertinentes. No se tendrán en consideración cualesquiera otras alegaciones que se emitan pasados los referidos 7 días.

6.– En el supuesto de que el Departamento deficitario no hiciera en los plazos establecidos la anterior propuesta, ésta podrá realizarse por la Vicerrectora o el Vicerrector de Ordenación Académica, que se notificará a los Departamentos y al Centro o los Centros afectados, así como a la Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado y éstos dispondrán de 7 días hábiles para realizar las alegaciones que estimen pertinentes. No se tendrán en consideración cualesquiera otras alegaciones que se emitan pasados los referidos 7 días.

7.– La Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado elevará al Consejo de Gobierno, para su aprobación, su propuesta de atribución transitoria de determinados créditos de materias o asignaturas de un Departamento a otro, así como la propuesta del Consejo de Departamento deficitario de atribuir transitoriamente determinadas materias o asignaturas, o parte de ellas. En el caso de carecer de esta propuesta, presentará la realizada por la Vicerrectora o el Vicerrector de Ordenación Académica.

8.– El Acuerdo del Consejo de Gobierno se comunicará, por parte de la Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado, a los Departamentos y Centro o Centros afectados, y a la Vicerrectora o el Vicerrector de Ordenación Académica y será publicada, por los Departamentos afectados, en sus tablones de anuncios.

Sailek, gainera, ahalegina egingo dute aipatutako erabakiaren berri emateko irakasle interesatuei, bereziki arrazoi justifikatuak izanda kanpoan daudenei. Horretarako, besteak beste, unibertsitateko helbide elektronikoa erabiliko dute.

9.– Gobernu Kontseiluaren erabakiaren kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo horri hilabeteko epean, erabakia argitaratzen denetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietarako Epaitegietan hilabete biko epean, erabakia argitaratzen denetik hasita.

10.– Irakasleen errektoreordeak Gobernu Kontseiluari aurkeztuko dio jarritako errekurtsoak ebazteko proposamena, baina horren aurretik jakinaren gainean jarriko du ordezkari sindikalen kasuan kasuko organoa. Gainera, organo horren iritzien berri eman beharko dio Gobernu Kontseiluari. Proposamena egiteko, txostena eskatu ahal izango dio Akademia Antolakuntzako errektoreordeari edo egoki ikusten duen beste edonori.

## IV. TITULUA

## IRAKASKUNTZA SAILEKO IRAKASLEEN ARTEAN BANATZEA

### I. KAPITULUA
### XEDAPEN OROKORRAK

***9. artikulua.***– Irakaskuntza esleitzeko organo eskuduna.

1.– Saileko kontseilua izango da, oro har, ziklo, diziplina eta ikasketa guztietako irakaskuntza antolatzeko organo eskuduna, kasuan kasuko atalek egindako proposamenei jarraiki.

2.– Jakintza arlo baten irakaskuntza kideko jakintza arloko irakasle eta ikertzaileei esleitzen bazaie aldi baterako, errektorea izango da esleipena egiteko organo eskuduna, kasuan kasuko saileko kontseiluaren proposamenari jarraiki.

***10. artikulua.***– Xedapen orokorrak.

1.– Harremana bideratze aldera, sailak ordezkaria izendatuko du irakaskuntza eman arren sail atalik ez duen ikastegietan.

2.– Irakasle bakoitzaren irakats betebeharrak betetzeko, irakasgai osoak (irakasgai talde osoak) esleituko zaizkie, ahal baldin bada, irakasle eta ikertzaileei.

3.– Sailak aparteko arreta eman behar dio pixkana-pixkana euskarazko irakaskuntza ezarri eta euskaraz

Estos procurarán, además, el conocimiento general del acuerdo de referencia por el profesorado interesado, especialmente por el que esté ausente por causa justificada, con la utilización de medios tales como el correo electrónico institucional.

9.– Contra el Acuerdo del Consejo de Gobierno podrán interponer, las personas interesadas, recurso potestativo reposición, ante dicho órgano, en el plazo de un mes desde la publicación del citado Acuerdo, o directamente, recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao en el plazo de dos meses desde su publicación.

10.– La Vicerrectora o el Vicerrector de Profesorado elevará al Consejo de Gobierno propuesta para la resolución de los recursos interpuestos informando, con carácter previo, al órgano de representación sindical correspondiente, cuyas consideraciones serán dadas a conocer al Consejo de Gobierno. Para la realización de dicha propuesta podrá solicitar informe de la Junta de Centro, de la Vicerrectora o Vicerrector de Ordenación Académica o cualquier otro que entendiera necesario.

## TÍTULO IV

## ASIGNACIÓN DOCENTE ENTRE EL PROFESORADO DE UN DEPARTAMENTO

### CAPÍTULO I
### DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 9.***– Órgano competente para asignar docencia.

1.– Con carácter general será el Consejo de Departamento el órgano competente para asignar la docencia en todos sus ciclos, disciplinas y estudios, en su caso, a partir de las propuestas que presenten las Secciones respectivas.

2.– Cuando se asigne transitoriamente a personal docente e investigador de un área de conocimiento, docencia de otra área de conocimiento afín, será la Rectora o el Rector el órgano competente para realizar dicha asignación al personal afectado, a propuesta del correspondiente Consejo de Departamento.

***Artículo 10.***– Disposiciones de carácter general.

